ZINEUSKADI 2017

“ZINEUSKADI”
ZE: 01-17

“Fikziozko eta animaziozko film luzeak eta sorkuntzazko dokumentalak sustatzeko eta publizitatea egiteko laguntzen deialdia”

ZINEUSKADI

1.- Deialdia

ZINEUSKADI elkarteak ikus-entzunezko ekoizpenen sustapenerako eta publizitaterako laguntzak arautzen ditu, lan horien hedapena eta merkaturatzea Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Europar Batasuneko beste tokietan sustatzeko, horrela, gero eta globalizatuagoa dagoen merkatu kulturalean Euskadiko nortasun kulturala zabaltzeko eta haren presentzia ziurtatzeko.

2.- Helburua

Deialdi honen helburua 2017ko ekitaldian fikziozko eta animaziozko film luzeen eta sorkuntzazko dokumentalen sustapenerako eta publizitaterako laguntzak emateko oinarriak ezartzea da. Lan horiek Euskal Autonomia Erkidegoko areto komertzialetan 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra estreinatutakoak izan behar dute.

Film luze zinematografikotzat hartuko ditugu hirurogei minutu edo gehiagoko ikus-entzunezko lanak, zinema-aretoetan ustiatzeko eginda daudenak. Sorkuntzazko dokumentaltzat hartuko ditugu, aldiz, gaia errealitatetik hartua duten proiektuak. Horrez gain, gai jakin bati buruzko lan originalak, ikerketakoak edo azterketak izan behar dute, gutxienez ordu komertzial bateko iraupenarekin eta zinemarako eginak.

3.- Onuradunak

Laguntzak eskuratu ahal izango dituzte Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko estatu kide batean bizi diren pertsona pribatu independenteek, betiere, laguntza jasoz gero Euskal Autonomia Erkidegoan establezimendu iraunkor bat irekitzeko konpromisoa hartzen badute. Ikus-entzunezko ekoizpen-etxe independente gisa inskribatuta egon behar dute Kultura Ministerioko Zine eta Ikus Entzunezko Arteen Erakundeko Zinematografia eta Ikus Entzunezko Enpresen Administrazio Erregistroan.

Pertsona pribatu independentetzat hartuko dira ikus-entzunezko komunikazio/hedapen-zerbitzuen eskaintzaile baten edo telebista-kate pribatu baten eragin dominatzailerik jasotzen ez duten pertsona fisikoak edo juridikoak eta eragin dominatzailerik egiten ez dutenak, edozein kasutan, ez jabetza kontuengatik, ez finantza-partaidetzagatik, ez eta administrazio- edo kudeaketa-organoen erabakiak baldintzatzeko ahalmenagatik ere.

Pertsona batek establezimendu iraunkor baten bidez lan egiten duen edo ez jakiteko, 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 21.2 artikuluan ezarritakoa hartuko da kontuan. Lege horren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko kontzertu ekonomikoa.

Ezingo dute laguntzarik jaso diru-laguntzak edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzeko zehapen penalarekin edo administrazio-zehapenarekin zigortutako erakundeek edo horretarako ezgaitzen duen nolabaiteko lege-debekuren batean sartuta daudenek, sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak barne, Gizon-emakumeen berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken seigarren xedapenean finkatutakoari jarraiki.

ZINEUSKADI

4.- Laguntzen norakoa, zenbatekoa eta muga

Laguntza jasotzen duen ikus-entzunezko lanak ekoizpenaren kostua aztertzeko eta egiaztatzeko ikuskapenaren txosten bereziaren 12.01 (CRI eta kopiak) eta 12.02 (Publizitatea) kapituluetan sartutako gastuak ordaintzeko erabiliko du laguntza. Txosten hori Kontu Ikuskatzaileen Erregistro Ofizialean inskribatutako ikuskatzaileek egin beharko dute.

Deialdi honetan, laguntzetarako gehienez ehun eta berrogeita hamar mila euro (150.000 €) emango dira. Laguntzetara bideratutako zenbateko osoaren % 30 (45.000 euro) jatorrizko hizkuntza gisa euskara duten hautatutako ekoizpenenen artean banatzeko gordeko da.

1.- Laguntzak lehiaketa bidez emango dira eta honela banatuko dira:

a) Laguntzen zenbateko osoaren erdia (75.000 euro) fikziozko eta animaziozko film luzeetan lor daitekeen gehieneko puntuazioaren gutxienez % 50 lortzen duten eskatzaileen artean banatuko da, zati berdinetan. Sorkuntzazko dokumentalen kasuan, lor daitekeen gehienezko puntuazioaren % 35 eskuratu beharko dute laguntza hori eskuratzeko.

b) Laguntzen zenbateko osoaren beste erdia, hautaketa- eta balorazio-irizpideen arabera, aurreko paragrafoan ezarritako gutxieneko ehunekoak gainditzen dituzten eskatzaileen artean banatuko da, balorazio horretatik ateratako ordenaren eta puntuazioaren arabera, aurrez ikusitako aurrekontua agortu arte.

   Fase horretan banatutako da euskarazko ekoizpen-lanetarako gordetako zenbatekoa. Horretarako, lan horiei hautaketarako eta baloraziorako irizpideak aplikatu ondoren lortutako puntuazioa hartuko da aintzat.

2.- Laguntza sustapenerako eta publizitaterako egindako eta ikuskatutako gastuen % 50era artekoa izango da gehienez. Pelikula bakoitzeko 35.000 euroko diru-laguntza ezarri da gehienez –euskarazkoetan, salbuespen gisa, zenbateko hori gainditu ahal izango da–. Laguntza publikoen zenbateko osoak (deialdi honen bidez emango direnak barne) ezingo du sustapenerako eta publizitaterako egindako eta ikuskatutako gastuaren % 50 gainditu.

3.- Elkarlanean egindako ekoizpenen kasuan, % 50eko ehunekoa ekoizpen-enpresa eskatzaileen ekarpenari aplikatuko zaio eta ekarpen horrek, gutxienez, ikus-entzunezko ekoizpenaren % 20ko ustiaketa-eskubideen gaineko titulartasuna izan beharko du.

4.- Ezingo dute laguntzarik jaso 2007ko abenduaren 28ko Zinemaren Legearen 9.2 artikuluan “X” gisa sailkatutako filmek.

5.- Eskaerak, epeak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

Laguntza-eskaerak jasotzeko epea hilabetekoa izango da eta **2017ko maiatzaren 5ean** amaituko da.

Eskaerak I. eranskineko eskaera-ereduan formalizatuko dira eta hor adierazitako agiriak ere aurkeztu beharko dira; baita II., III. eta IV. eranskinak beteta ere. Eskaera horiek ZINEUSKADIren zuzendaritzari bidali beharko zaizkio, helbide honetara:

ZINEUSKADI elkartea
TABAKALERA (3. Solairua)
Andre Zigarrogileen plaza, 1
20012 Donostia

Eskaerak aurkezteak deialdi honen oinarriak zehazten dituzten baldintzak espresuki eta modu formalean onartzea dakar.

6.- Aurkeztutako eskaeran akatsak konpontzea

Laguntza-eskaera baldintza guztien arabera beteta iritsiko ez balitz, ZINEUSKADI elkarteko zerbitzu teknikoak eskatzaileari akatsak konpontzeko eskatuko dio. Eskakizun hori eskatzaileak jakinarazpenak jasotzeko emandako helbide elektroniko bidez egingo da eta helbide horrek erabilgarri egon beharko du prozesu osoan zehar. Eskakizun horri erantzun ez eta eskatutako konponketa 10 egunetan egiten ez bada, proiektura aurkezteari uko egiten zaiola ulertuko da.

7.- Balorazio Batzordea

Eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko Balorazio Batzorde bat eratuko da.

Batzorde hori ondorengo kide hauek osatuko dute:

a) ZINEUSKADIko presidentea: Eusko Jaurlaritzako Kulturaren Sustapeneko zuzendaria edo haren ordezkoa.

b) ZINEUSKADI elkarteko Zuzendaritza Batzordeak izendatutako bi aditu-profesional, aztertu beharreko laguntzekin lotura dutenak.

c) ZINEUSKADIko proiektuen teknikaria: Gurutze Peñalva

Batzorde horretarako izendatutako aditu-profesionalek zinpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute ondorengoa adierazteko: ez daudela 1992ko azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak horrelako lan batean parterik ez hartzeko aurrez ikusitako kasuetan, ez dituztela eskatzaileek aurkeztutako agiriak proiektuak deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera baloratzeko ez den beste ezertarako erabiliko eta deialdiaren ebazpena igorri ondoren, espedienteen agiri guztiak deialdiaren organo kudeatzaileari bidaliko dizkietela.

Batzorde horrek, ezarritako esleipen-irizpideetan oinarrituta, diru-laguntza emateko proposamena adostuko du eta, ondoren, ZINEUSKADI elkarteko Zuzendaritza Batzordera igorriko du proposamen hori.

Era berean, Batzordeak batere proiekturik ez onartzeko proposamena edo diru-laguntzen zenbateko osoa ez esleitzeko proposamena egin dezake kalitate faltagatik edo deialdi honen helburua ez duela betetzen erakusten duen beste edozein arrazoirengatik.

Balorazio Batzordeak jasotako eskaerak behar bezala ebaluatzeko beharrezkoa dela iritzitakoan, eskatzaileei nahi adina argibide eskatzeko aukera izango du.

8.- Diru-laguntzak emateko irizpideak eta zenbatekoak

Balorazio Batzordeak eskaerak aztertu eta ondoren aipatutako ditugun irizpideen eta baremoen arabera zehaztutako alderdi guztiak ebaluatuko ditu.

a) Produktuaren kalitatea eta interesa, besteak beste, balio artistikoko ekimen-izaerak edo Euskadiko eta/edo bertako herritarren errealitate kultural, sozial edo bestelako edozein dimentsiorekin duen loturak zehaztuta edo proiektuan genero-ikuspegia txertatuta: % 20 arte.

b) Produktuak lortutako eragin komertziala. Horretarako, kontuan hartutako dira lan horrek estreinatzean izandako arrakasta (editatutako kopia kopurua; banaketaren datuak; leihatilako diru-bilketa; DVDen salmentak eta ordainpeko webguneetako sarreren bidezko salmentak; tokiko, Estatuko eta nazioarteko telebistetara egindako salmentak): % 25 arte.

c) Sustapenean eta publizitatean egindako ahalegina: film luzea egitearen kostuari dagokionez, enpresa ekoizleak ikuskapenaren txostenean ofizialki aitortutako sustapenerako eta publizitaterako gastua: % 25 arte.

d) Filmaren jatorrizko bertsioa euskaraz filmatzea: % 20 arte.

e) Enpresa- eta giza baliabideak: % 10era arte. Proiektua gauzatzeko aurrekontu osoa aintzat hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi edo finkatuta dauden pertsona fisikoek edo juridikoek eskainitako sorkuntzako baliabideak, baliabide artistikoak eta teknikoak kontratatzen egindako inbertsioari dagokion ehunekoaren arabera esleituko dira. Inbertsioen ehuneko horrek ikus-entzunezko ekoizpenerako aurrekontuaren % 40 baino handiagoa eta % 80 baino txikiagoa izan behar du.

9.- Bateragarritasuna

Deialdi honetan emandako laguntzak xede bereko beste erakundeek emandako laguntzekin bateragarriak izango dira, diruz lagundutako jardueraren gainfinantzaketarik ez dagoenean, betiere. Hori gertatuz gero, laguntzaren zenbatekoa dagokion mugaraino murriztuko da gainfinantzaketa hori ez sortzeko.

10.- Emakida egiteko akordioa

1.- Balorazio Batzordeak eskaerak aztertu eta ebaluatu ondoren, ebaluazioari dagokion txostena eta laguntzak emateko proposamena ZINEUSKADI elkartearen Zuzendaritza Batzordeari igorriko dizkio. Ondoren, elkarteko presidenteak laguntzak emateko akordioa emango du.

2.- Deialdi honetako laguntzak emateko akordioa ZINEUSKADIren webgunean egingo da publiko jendeak ebazpenaren berri izan dezan, eta laguntzak eskatutakoei posta elektroniko bidez jakinaraziko zaie ebazpena.

11.- Laguntzaren ordainketa

Ordainketa izenduna izango da, onuradunen izenean egindakoa, eta ordainketa bakarrean egingo da. Laguntzaren ordainketa emakidatik abiatuta izapidetuko da, onuradunak emakida onartu ondoren.

Deialdi honetan araututako laguntzen onuradunek ondorengo betebehar hauek izango dituzte:

a) Emakidatutako laguntza onartzea. Zentzu honetan, emakida jakinarazpena izan eta 15 egun balioduneko epean erakunde onuradunak ez badio laguntzari berariaz uko egiten, berau onartua dagoela ulertuko da.

b) Laguntzaren emakida jaso ondoren egiten den edozein kopia edo euskarritan zabaltzea, obra edota ikus-entzunezko ekoizlea Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturak Sailak ZINEUSKADI Elkartearen bitartez jasotako laguntza baten onuraduna izan dela.

c) Euskadiko Filmategia Fundazioan Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren izenean eta jabetzan laborategiko kopia berri bat jarri izanaren egiaztagiria. Baldintza onetan egon behar du, zinema-aretoetan estreinatu deneko pasoan eta formatuan, ekoitzitako jatorrizko bertsioan eta Betacam Digital bat, estreinatutako bertsio komertzial bakoitzaren DVD bat, elkarrizketen zerrenda bat jatorrizko bertsioan eta bikoiztutako hizkuntza bakoitzean, sei gida, sei kartel eta sei argazki eta Euskadiko film-ondarea gordetzeko eta hedatzeko interesgarria izan daitekeen lanaren beste edozein sustapenerako agiri. Ez zaie inola ere erabilera komertzialik emango.

Lana euskarri bideografikoan ekoitzi eta erakutsi bada, gordailua Betacam Digital kopian egingo da eta estreinatutako bertsio bakoitzeko DVD bat ere gordeko da. Lehen aipatutako sustapenerako materiala eranskin gisa jarriko da.

Nolanahi ere, lanen gordailuak jendaurrean lehenengo aldiz erakusten direnetik 30 egun igaro baino lehen egingo dira.

Euskadiko Filmategia Fundazioan bi DVD entregatu izanaren ziurtagiria.

d) ZINEUSKADI elkartearen bulegoetan editatutako sustapenerako material guztien aleak entregatu beharko dira; baita ondorengo hauek ere:

- Lanaren DVD bat estreinatutako bertsio komertzial bakoitzeko.
- 2 gida, 2 kartel eta 6 argazki eta Euskadiko film-ondarea gordetzeko eta zabaltzeko interesgarria izan daitekeen beste edozein sustapenerako agiri. Ez zaie erabilera komertzialik emango.
- DCP

Ez da beharrezkoa izango atal honetan aipatzen diren materialak entregatzea, empresa eskatzaileak Fundación Filmoteca Vasca edo ZINEUSKADI Elkartean lehendik utzi baditu, eta ez badute inolako aldaketarik jasan.

e) Erregistrorako ISAN Agentzia Iberoamerikarraren (ARIBSAN) aurrean ISAN Erregistroa esleitzeko izapideak eginak daudela adierazteko egiaztagiriak.

f) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kargura laguntzak eta diru-laguntzak jasotzeko ezarrita dauden beste edozein obligazio edo betebehar.

12.- Ez betetzeak

1.- Ez betetze kasutzat hartuko dira honako hauek:

a) Diru-laguntzak horretarako behar diren baldintzak faltsututa edo laguntza lortzea eragotziko luketen baldintzak ezkutatuta lortzea.

b) Jasotako laguntzak deialdian aurrez ikusitakoez bestelako jardueretarako aplikatzea erabat edo partzialki .

c) Deialdi honetan edo, hala badagokio, laguntza ematean ezarritako betebeharrak ez betetzea.

d) Kasuan kasu, laguntzaren likidazio-akordioan adierazitako zenbatekoa horretarako ezarritako epean ez itzultzea.

e) Beste edozein xedapenek nahitaez bete beharrekotzat ezarritako beste edozein.

13.- Itzultzea

Onuradunak diruz lagundutako proiektua gauzatzea behar bezala justifikatzen ez badu edo aurreko ataleko baldintzaren bat betetzen ez badu, ordaindu zaion diru guztia edo zati bat itzultzeko eskatuko zaio. Laguntza ordaintzen denetik dirua itzuli arte sortutako berandutza-interesak ere ordaindu beharko ditu proportzionaltasuna gordez.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenengoa.- 4. Puntuan jaso den guztirako zenbatekoa aldatu egin ahal izango da, eskatutako diru-laguntzen guztirako zenbatekoa kontutan harturik, Zineuskadi Elkartearen beste laguntza-egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontuak agortu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa diru-laguntzak ebatzi baino lehen egin behar da.

Bigarrena.- Datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko 2004ko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honen izapideetan jasotako datu pertsonalak, parte-hartzaileek tratatzeko eta argitaratzeko baimena emandako datuak, fitxategi batean jasoko dira. Fitxategi horren helburua diru-laguntzen deialdi hau eta deialdi honekin zerikusia duten beste edozein prozedura edo espediente administratibo kudeatzea izango da; baita deialdi honetara aurkeztu diren pertsonei deialdiaren garapenari buruzko informazioa ematea ere. ZINEUSKADI elkartea da fitxategi honen arduraduna. Datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko, bertan behera uzteko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dira ZINEUSKADI elkartearen aurrean. Horretarako idatzi helbide honetara:

ZINEUSKADI elkartea
TABAKALERA (3. Solairua)
Andre Zigarrogileen plaza, 1
20012 Donostia

Era berean, deialdi honetako partaideek baimena ematen dute aipatutako fitxategian gordetako datu pertsonalak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei emateko, deialdiaren helburuarekin bat datozen xedeetarako. Horrez gain, ZINEUSKADI elkarteari baimena ematen diote beste erakunde publiko batzuetan eskatzaileek aurkeztutako agirien benetakotasuna egiaztatzeko.

Donostian, 2017ko apirilaren 5ean

ZINEUSKADI elkarteko presidentea
Aitziber Atorrasagasti Calcedo